

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

2009ko EGITASMOA

[MEMORIA]

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

	EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak		ELHUYAR Aholkularitza
	EMUN Kooperatiba		Eusko Ikaskuntza
	Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea		Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETeLE)
	Udako Euskal Unibertsitateko Soziolinguistika Saila (UEU)		AZTIKER Ikerunea
	ARTEZ Euskara Zerbitzua		EHU-UPVko Soziologia II Saila
	Hernaniko Udala		Tolosako Udala
	Topagunea. Euskara Elkarten Federazioa.		Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
	Euskara Kultur Elkargoa		EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
	Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)		Gipuzkoa Donostia Kutxa
	Ikastolen konfederazioa		Ebate
	Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea		Bermeoko Udala

AURKIBIDEA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA	2
AURKIBIDEA	3
1 Sar hitza	4
2 Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera	5
3 Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa	5
3.1 Antolaketarako ereduak: Klusterra	5
3.2 Soziolinguistika Klusterraren osaketa	5
3.3 Soziolinguistika Klusterraren antolaketa	6
4 Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak	8
4.1 Soziolinguistika Klusterraren misioa	8
4.2 Soziolinguistika Klusterraren bisioa	8
4.3 Soziolinguistika Klusterraren balioak	8
5 Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa	9
6 Garatutako proiektuak	11
6.1 Datuak bildu eta bateratu	11
6.1.1 Hizkuntza-Erabilera Neurtzeko Metodologiak biltzea eta bateratzea	11
6.1.2 EDB	11
6.1.3 Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak	12
6.1.4 Euskaini Neurketak	12
6.2 Gazteen esparrua	13
6.2.1 ARRUE proiektua	13
6.2.2 Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa	13
6.3 Arlo sozioekonomikoa	14
6.3.1 EREALAN2 proiektua	14
6.3.2 Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua	14
6.4 Familia transmisioa	15
6.4.1 Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa proiektua	15
6.5 Hausnarketa teorikoa bultzatu	15
6.5.1 Hausnartu. Soziolinguistika sariak	15
6.6 Komunikazioa eta teknologia berriak	16
6.6.1 Komunikazio kanpainak ebaluatzen adierazle sistema osatzea	16
6.7 Ezagutzaren dibulgazioa	16
6.7.1 Bat Soziolinguistika Aldizkaria	16
6.7.2 Soziolinguistika Klusterraren webgunea	17
6.7.3 SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera	17
6.7.4 Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan	18
6.7.5 Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan	18
6.7.6 Soziolinguistika eskuliburua	18
6.7.7 Soziolinguistika jardunaldia	19
7 Komunikazioa eta harremanak	20
7.1 Harremanak	20
7.2 Lankidetzak	21
7.3 Komunikazioa	21
8 Soziolinguistika-erloko sarea eratzen	22
9 Urteko helburuak eta balantzea	24
9.1 Adierazleen balantzea	26

1 Sar hitza

Askok krisia lehertu zen urte gisa gogoratuko dute 2009a. Finantza eremutik hasi eta eremu produktibora zabaldu den krisia izan dela diote adituek. Gure bazkide diren AEKko kideek, ziurrenik, Korrikaren urte gisa bizi izango zuten 2009a. Tuteratik Gasteizera bidean, ongietorria egin zieten herriz herri euskararen mundura, euskaraz bizi nahi dugunon mundura, gerturatu diren guztiei. Bertsozale diren guztiek, dudarik gabe, Euskal Herriko bertsolari finalaren urtea izendatuko dute 2009a. Bertan sortutako giroak eta bertsolariak eskainitako bertsoek ondorengo luzea utzi zuten. Izango da, noski, hiru gertakari horietako batekin berarekin ere identifikatu ez eta 2009tik bestelako oroitzapenik jasoko duenik. Soziolinguistika Klusterrari dagokionez, hiru gertakari horiek badakarkigute gogora urteak emandakoa.

Krisiaren ondorioak ezagutu ditugu eta gure sostengu nagusia den finantzaketa publikoan izandako murrizketen ondorioak jasan ditugu. Aurrera begira ere, ez dirudi epe motzean gauzak asko aldatuko direnik. Eginiko bidea, ordea, ez dugu alferrekoa izan eta aurrera begira baior jarraitzen dugu. Krisitik ateratzeko bidea berrikuntzan sakontzea dela dioten honetan, Soziolinguistika Klusterra zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sareko kide izendatu dute eta, bide horretatik, soziolinguistika-ezagutza garatu eta zabaltzeko asmoari bultzada berri bat eman nahi diogu. Ondorengo urteetan egin beharreko bidea marrazte aldera, Gogoeta Estrategikoa egin dugu eta bertan ateratako ondorioa da, besteak beste, soziolinguistika-ikerketen eskaintza indartu behar dugula, lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak, kalitatezkoak eta diziplinartekoak burutuz.

Korrikak emandako ongietorriak guk ere eman behar dizkiegu zenbaitzuei. Soziolinguistika-arlorra gerturatu eta Klusterrarekin lankidetzari berriak irekitzea erabaki dutenei, hain zuzen. Horien artean, Soziolinguistika Klusterreko kide berriei egin nahi genieke lehen ongietorria: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateari eta Bermeoko Udalari, hain zuzen. Bata, arlo teorikoan dabilen erakundea eta bestea, berriz, arlo aplikatuan. Gure gainontzeko kideekin batera Soziolinguistika Klusterraren baitan harreman berriak, ezagutza berriak eta lankidetzari berriak topatzea espero dugu. Ez dira hor bukatzen, ordea, gure ongietorriak. Lankidetzari bide berriak zabaltzen aritu gara eta esan genezake horien inguruko lehen fruituak ikusiko ditugula 2010ean zehar. Horrela, aipatu nahi genituzke Kutxarekin irekitako lankidetzari, UPV-EHUrekin hitzartutakoa eta UNESCO Etxearekin landu duguna. Bihoakie lankidetzari eta lankide horiei ere gure ongietorria.

Bertsolari finalari dagokionez, gure hitzak erabiltzea baino, egokiagoa da Maialen Lujanbio txapelidunari hitz batzuk ebastea. Ondorengo, bere agurreko azken puntua da:

*Herri hau sortzen segi dezagun,
euskaratik ta euskaraz.*

Ez ziren oso bestelakoak, aurrean EHUko Udako Ikastaroetan Soziolinguistika Klusterrak lehen aldiz antolatutako ikastaroaren azken eguneko mahai-inguruan Jon Sarasuak esandakoak:

[...] Zentzu horretan eraiki behar dugu gramatika hori [...] XXI. mendean hizkuntzaren eta euskaltasunaren garapena pentsatzeko, eta pentsamendu-elementu horiez orain artean baino sakonago eta konpartituagoan pentsatzeko.

Bat Soziolinguistika Aldizkari-ko 72. zenbakia irakurtzen duenak, ikusi ahal izango du ez zela izan inondik inora Jonen mahai gaineratu zuen gogoeta zorrotz bakarra:

[...] iruditzen zait azken hamarkadetan diskurtso soziolinguistiko erriguroso bat gabe ari garela [...] Nik uste dut begiratu errigurosoa ez dela mamitu Euskal Herrian. Ez dela mamitu hizkuntza-politikan, ez dela mamitu beste guneeetan ere [...] gure gaixotasunaren diagnostiko sakonik egin gabe gaudela pentsatzen dut [...] eta diagnostikoaren araberakoa izan beharko du hizkuntza biziberritzeko tratamenduak.

Hitz horiei segituz, ikuspegi autozentratua eta errigurosoa izatea badira soziolinguistika-ezagutza garatzeko oinarriko bi ardatz. Bide horretan, laster argitara emango den *Soziolinguistika eskuliburua* urrats bat izan daiteke. Baina argi dago, aipatutako gogoetetan agertzen den modura, euskaldunok gramatika propioa eraiki eta ikuspegi errigurosoa izan asmo badugu, soziolinguistika ezagutzan sakontzeko bide luzea dugula aurretik. Bide horretan murgildu nahi duen edonork, nahi izanez gero, lankide izango du Soziolinguistika Klusterra.

2 Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera

Soziolinguistika kluster baten sorrera proiektu hau **2000ko azaroan “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” SIMPOSIUMaren** erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren inguruan egituratzen da. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa- eta zabalpen-gune baten gabezia eta beharra jasotzen da, Euskal Herrian hizkuntzaren normalizazio-prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei (pribatu, publiko zein gizarte-mailako) arlo zientifiko-aplikatutik laguntza eskainiko diena, beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik, Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginean **bat egin zuten hainbat eragilek**. Hasieratik zeudenekin (NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartea) bat egin dute Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Horien artean, Klusterra sortzearen aldeko bidean, gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin zuten: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak eginez, eztabaidarako foroak antolatuz eta lankidetzarako hitzarmenak sinatuz (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»-ren aldeko Lankidetzeta-Protokoloa, 2001eko azaroan «SIKeraiki» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

3 Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

3.1 Antolaketarako eredia: Klusterra

Soziolinguistika Klusterraren eraketarako, izenak berak adierazten duenez, **klusterraren eredia** hobetsi da. Izaera guztiz ezberdina duten entitateak organizatiboki elkarren artean lotzeko baliagarria izan daitekeelako eta, gainera, badagoelako lehendik Euskal Herrian beste kluster batzuen eredia –hala nola Ezagutzaren Klusterra– oso lagungarri gerta dakigukeena.

Klusterra taldekatze bat da, esparru jakin batean elkarren artean nolabaiteko lotura, harremana edo interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen arteko taldekatzea. Normalki enpresak izaten dira klusterraren muina eta haiekin batera administrazioak, unibertsitateak, formazio-zentroak, elkarte profesionalak, edota zerbitzu bereziak egon ohi dira.

Kluster baten **funtzioa** da **kooperazio-egiturak antolatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea** eta berrikuntza sustatzea, horrek guztiak dagokion sektorearen garapenari positiboki eragin diezaion. Klusterrek sinergiak sortzen dituzte. Horrela, erakunde desberdinek euren kabuz aurrera atera ezingo litzuketuen proiektuak bideragarri egin litezke.

3.2 Soziolinguistika Klusterraren osaketa

Lehen aipatu bezala, hainbat erakundek bat egin zuten Soziolinguistika Klusterra sortzeko beharrarekin. Batzuk hasieratik izan genituen erakundea sortzeko bultzatzaile eta beste batzuk, berriz, gure erakundeak egin zezakeen

lana eta lan horretatik eurek lor zitzaketen etekinak aztertuta egin ziren bazkide. Egun, 22 erakunde bazkide eta 104 norbanako ditugu. Jarraian duzue Soziolinguistika Klusterreko erakundeen zerrenda:

Bazkide Sustatzaileak

- | | |
|---|---------------------------------------|
| 1. Elhuyar Zubize SLU | 7. ARTEZ Euskara Zerbitzua |
| 2. Emun Kooperatiba Elkarte | 8. AZTIKER Ikerguna |
| 3. Eusko Ikaskuntza | 9. Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK) |
| 4. HUHEZI Koop. E. | 10. Gipuzkoa Donostia Kutxa |
| 5. Topagunea. Euskara Elkarten Federazioa | 11. Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua |
| 6. Gipuzkoako Urtxintxa Eskola | 12. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) |

Bazkide Erabiltzaileak

- | | |
|---|---|
| 1. EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak | 7. Ebete elkarte |
| 2. EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila | 8. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa |
| 3. EHU-UPVko Soziologia II saila | 9. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien fakultatea |
| 4. Euskara Kultur Elkargoa | 10. Bermeoko Udala |
| 5. Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua | + 104 norbanako |
| 6. Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETeLE) | |

3.3 Soziolinguistika Klusterraren antolaketa

Soziolinguistika Klusterrak hiru organo nagusi ditu. Batetik, Batzar Orokorra dago. Hemen, aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzeko dira. Honekin batera, hiru urtean behin Batzar Orokorreko kideak (bazkide guztiak) Soziolinguistika Klusterraren egitasmo estrategikoaren osaketan parte hartzeko aukera dute, horretarako berariaz antolatutako bileren bidez. Hain zuzen, 2009 urtean burutu dugu ondorengo hiru urteetako epealdiari dagokion egitasmoa zehazteko gogoeta. Dokumentu honetan, beraz, gogoeta horren zenbait emaitza ikusi ahal izango dituzue.


Bestetik, Zuzendaritza Batzordea dugu. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzeko unean-unean beharrezko erabakiak hartu eta beharrezko egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. 2009an ondorengoek osatu dute:

- Aitziber Sarasola (AEK). Lehendakaria
- Iker Martinez de Lagos (Topagunea)
- Jaime Altuna (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Joxan Oiz (UEU)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- J. Inazio Marko (Eusko Ikaskuntza)
- Olatz Olaso (Emun Kooperatiba)
- Aizpea Otaegi (Elhuyar Aholkularitza)
- Pello Jauregi (EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- Iker Salaberria (Soziolinguistika Klusterra). Idazkaria

Bukatzeko, proiektu eta jarduera desberdinen garapenez arduratzen den bulego teknikoa dugu. 2009an ondorengo teknikariak izan gara Soziolinguistika Klusterrean lanean:

- Olatz Altuna
- Asier Basurto
- Isabel Godinez. Administraria
- Oihana Lujanbio
- Iker Salaberria. Kudeatzailea
- Pablo Suberbiola
- Belen Uranga

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ORGANIGRAMA





4 Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

Aurrez azaldu bezala, 2009an Gogoeta Estrategikoa egin zuen Soziolinguistika Klusterrak. Gogoeta horretan ezarriak genituen misio, bisio eta balioak berraztertu ziren. Norabide aldaketa nabarmenik izan ez arren, atal hauetan jasotako ideiak argitzeko eta zehatzago definitzeko ahalegina egin genuen. Jarraian doakizue emaitza:

4.1 **Soziolinguistika Klusterraren misioa**

Soziolinguistika Klusterra, soziolinguistika eremuko eragileen klusterra da. Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egokiak sortuko ditu, esparri teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu.

4.1.1 BIDEA

- Euskararen normalizaziorako baliagarriak diren marko teorikoak garatzea
- Marko teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea
- Euskararen egoeraren inguruko adierazle eta datuak eskuratzea
- Ikerketak garatzea eta ikertu dadin bultzatzea
- Informazio eta formazioa zabaltzea
- Esperientzia eredugarriak biltzea eta zabaltzea
- Soziolinguistikarekiko interesa lantzea

4.2 **Soziolinguistika Klusterraren bisioa**

Soziolinguistika Klusterra, euskararen soziolinguistika-arloan erreferente izango da lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak, kalitatezkoak eta diziplinartekoak burutzeagatik. Horretarako, irizpide propioekin lan egingo du.

4.3 **Soziolinguistika Klusterraren balioak**

- 1 *Euskararen hizkuntza-komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea*
- 2 *Bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, interes orokorreko proiektuak garatzea*
- 3 *Bazkideen jarduera errespetatzea eta indartzea, konkurrentzia saihestuz eta osagarritasunak bilatuz*
- 4 *Komunikazioa egoki lantzea*
- 5 *Proiektuetan kalitatea bermatzea*
- 6 *Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea*
- 7 *Bazkideei emaitza onuragarriak eta erabilgarriak eskaintzea*
- 8 *Klusterrak bokazio publikoa duenez, gizarte-mailan bere emaitzak zabalduko ditu*
- 9 *Klusterrak gizarte-erantzukizunez jokatu du*
- 10 *Talde-lana, lankidetzeta eta hurbiltasunezko harremana izango ditu oinarri*



5 Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa

Soziolinguistika Klusterraren Egitasmo Estrategikoa diseinatzekoan “Balanced Scorecard” edo Gida Panel Integralaren eredu jarraitu dugu, betiere gurea bezalako erakunde baten ezaugarrietara egokituz.

Eredu horren arabera, abiapuntua aurreko atalean ikusi dugun ikuspegi estrategikoa definitzea izan da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definitu dira lau mailatan banatuta:

Baliabideak: baliabide pertsonal eta materialen atalari dagokio.


Prozesuak: gure lanaren antolaketarako abian jartzen ditugun sistemai eta kudeaketa-ereduari dagokio.

Erabiltzaileak: gure misio eta bisioa lortzeko zer eskaini behar diogun erabiltzaile eta komunitateari.

Helburu “gakoak”: misioari eta bisioari zuzenean lotuta doazen helburuak dira, baita alderdi ekonomikoari lotutakoak

Mapa estrategikoa

Mapa honek jasotzen ditu ondorengo hiru urteei begira maila desberdinetan (helburu-gakoak, erabiltzaileak, prozesuak eta baliabideak) zehaztu ditugun helburuak. Horrekin batera, helburu horien arteko kausa-efektu loturak adierazi ditugu.



6 Garatutako proiektuak

Jarraian dituzue, Soziolinguistika Klusterrak 2009 urtean garatu dituen proiektuei buruzko informazioa. Gure proiektuak soziolinguistika-erlako ezagutza garatzeko zehaztu ditugun lehentasunezko lan-lerro batzuen baitan antolatu ditugu. Jarraian, proiektu bakoitzaren oinarriko informazioa topatuko duzue, hauen inguruko informazioa sakonagoa eskuratu nahi izanez gero, bazkideok, gure webgunean topatu ahal izango duzue eta gainontzeko, proiektuetako koordinatzaileekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Horretarako, proiektu bakoitzaren azalpenaren ondoren adierazi dizuegu proiektuaren koordinatzailea nor izan den eta bere helbide elektronikoa zein den.

6.1 **Datuak bildu eta bateratu**

Euskararen egoera inguruko azterketak egiteko beharrezko datuak bildu eta hauek konparatu ahal izateko moduan eskaintzea bilatzen du lan-lerro honek. Horretarako, datu bilketa zuzena egiteaz gain, datu berriak biltzeko metodologiak doitzea edota datu bera eskuratzeko erabiltzen diren metodologiak bateratzea dira, besteak beste, aurreikusten ditugun proiektuetarako oinarriak.

6.1.1 **Hizkuntza erabilera neurtzeko metodologiak biltzea eta bateratzea**

Soziolinguistika Klusterrak erabileraren neurketetan ibilbide luzea du. Ikerketa ezberdinak burutu ditugu aztergai hau oinarri hartuta. Ezagunena Euskal Herriko Kale Neurketa da. Ikerketa horrez gain, azken urteotan ikastetxeetan, eskolaz kanpoko jarduera-esparruetan, eta oro har, gazteen guneeetan hainbat neurketa egin ditugu. Guztietan erabilitako metodoa antzekoa bada ere, badira ezberdintasun batzuk. Urte hauetan neurketekin jasotako esperientziaren inguruan hausnarketa bat egiteko premia nabaritu genuen. Urteetan pilotutako, hainbat zalantza eta gai genituen mahai gaineen: metodoaren inguruko zailtasunak eta ahalmenak, eskuratzen ditugun datuen ustiaketa estatistikoa (akats-tartea) eta interpretazioa, laginketa...

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesarekin proiektua abiatu genuen. Bi lan-lerro izan ditu proiektuak: bata erabilera neurtzeko metodoak biltzea, eta bestea metodologiak bateratzea. Bilketa-lanari dagokionean, hamar erakundeen informazioa jaso dugu: Artez, Emun, Arrasateko Udala, Elgoibarko Udala, Bagera, Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, Karrikaluze, LAB, Elhuyar eta Soziolinguistika Klusterra. Informazio guzti hori datu-base batean jaso da. Horrela, etorkizunean ere, informazio hau modu sistematikoan erregistratzeko bidea egin dugu. Metodologiak bateratzeko Euskal Herriko Unibertsitateko Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala Saileko, Yosu Yurramendirekin aritu gara lanean.

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org

6.1.2 **EDB**

EDB euskararen datu estatistikoaren biltegi bat da. Iturri batetik eta bestetik datu asko jasotzen dira eta euskaldunei buruzko datu demolinguistikoak osatu gabe eta sakabanatuak daude. EDBk datu horietako batzuk bildu eta bateratu egin ditu. Horrez gain, Euskal Herri mailako datuak eskuratzeko estimazioak egin dira.

Proiektuaren ekarpenak hiru alderditan laburbil ditzakegu: lurraldeen zehaztapena, datuen osotasuna eta datuak bateratzeko erabili den metodologia.

Gaur egun lau adierazle nagusiri buruzko datuak aurkezten ditu: euskararen ezagutzari buruzko datuak, erabilerari buruzkoak, euskarak hezkuntzan duen tokiari buruzkoak eta eraginkortasun indizearenak (erabilera zati ezagutza).

2007an aipatutako adierazleen datuak eguneratzearekin batera (erabileraren eta hezkuntzako datuak), datu basea sistema berri batean integratu dugu. Horrela, sistema beraren egonkortasuna handitzearekin batera, datuen bilaketa erraztu eta datu-basearen erabilgarritasuna hobetu nahi izan dugu. Datu-basea ikusteko jo ezazue ondorengo helbidera: <http://www.soziolinguistika.org/edb/>

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org

6.1.3 Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak

Hainbat udaletatik, herriko euskararen kale-erabilera hobeto ezagutzeko premia adierazi digute. Honi erantzunez, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko 50 udal baino gehiagotan neurketak egiten jaso duen esperientzia probestu eta herriko kale-erabileraren hainbat neurketa burutu ditu 2009an. Hemen duzue, zehazki zein herritan egin ditugun aipatutako neurketak.

- | | |
|----------------------|-----------|
| 1. Azpeitia | 2. Berriz |
| 3. Eskoriatza | 4. Pasaia |
| 5. Urretxu-Zumarraga | |

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org

6.1.4 Euskaini Neurketak

Euskaini, euskarazko eskaintzaren adierazlea, Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística-ko teknikariek sorturiko Ofercat adierazlean oinarrituta SEI Elkartek prestatutako egokitzapena da, geroztik Soziolinguistika Klusterrak bere egin duena. Gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, etab.) jasotzen dugun hizkuntza-eskaintza du aztergai; hau da: herritar batek jasotzen duen hizkuntza-errealitatearen zein proportzio dagoen hizkuntza jakin batean (errotuluak, idazkiak, ahozko komunikazioa...)

Euskaini-ren bitartez, konplexua den errealitate bat (herri bateko hizkuntza-eskaintza) modu sinplean eta indize zehatzen bidez adierazi dezakegu, modu horretan bere bilakaera ere aztertze aukera izanik.

2009an Hernanin eta Azpeitian egin dugu Euskaini neurketa. Neurketa hauetan ondorengoak izan dira landa-lana egin duten lankideak: Nerea Zubia, Juan Mari Mendizabal, Ane Lujanbio eta Aizpea Aizpurua eta Jaione Unanue.

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org

6.2 Gazteen esparrua

Gazteen esparrua arreta-gune bihurtzen ari da azken urteetan. Etorkizuneko jendarte osatzeko oinarria dira eta azken urteetako ahalegin nagusia, hezkuntza formalaren bidetik, euren euskarazko gaitasuna bermatzera bideratu izan da. Denborak erakutsi digu, ordea, hezkuntzaren bidez, soilik, nekez euskaldunduko direla belaunaldi berriak eta, gainera, jendarte esparru honetako ezagutzak gora egin arren, erabilera ez dela ari erritmo berean hazten. Hortaz, Soziolinguistika Klusterrak ere lehentasunez landu beharreko jendarte-esparrua kontsideratzen du gazteena.

6.2.1 ARRUE proiektua

Arrue, EAEko haur eta gazteen eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzeko sortutako proiektua da. Ikerketa honen helburua eskolako hizkuntza-erabileran zein aldagaik eragiten duten ikertzea da, edo, hobeto esateko, nolako lotura duen eskolako hizkuntza-erabilerak aztertzen diren beste aldagaiekin (adibidez: ikaslearen *lehen hizkuntza*, ikaslearen *ahozko gaitasuna*, ikastetxearen zenbait ezaugarri...).

Ikerketa 2004-2005 ikasturtean jarri zen martxan Soziolinguistika Klusterraren eta Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren bidez.

Aurtengoan datu-jasoketa orokorra eta jasotako datuen analisia egin da. Horrekin batera, Arruen 05-07 ikasturteen artean eginiko lana biltzen duen argitalpena (euskaraz, gaztelerez eta frantsesez) prestatu dugu. Bestalde, Jasone Cenoz-ekin lankidetzan, "Language, Culture and Curriculum" aldizkarian ikerketa honen inguruko artikulua (ingelesez) argitaratu dugu.

Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
pablo@soziolinguistika.org

6.2.2 Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa

2006 eta 2007an gazteen hizkuntza-erabileraren inguruan eginda zegoena eta egiteke zegoena "Perspektiba eta prospektiba" proiektuaren bidez identifikatu ostean, *Soziolinguistika Klusterrak*, Gipuzkoako *Urtxintxa* aisialdi-eskolak eta *Topagunea* euskara-elkarteen federazioak osatutako lan-taldeak, proiektu berri hau abiatzeko premia ikusi zuten. Eremu ez formaleko gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak aztertu eta esku hartzerako garaian baliagarria izango den oinarri teorikoa eskaintzea da proiektu honen helburua.

Soziolinguistika Klusterrak Urtxintxa eskolarekin eta Topagunea euskara-elkarteen federazioarekin garatu du hain konplexua den gazteen hizkuntza-erabileraren fenomenoaren azterketa. Gazteekin lanean esperientziadun jendea, gaia maila teorikoan landu duena eta ezaugarri ezberdinetako gazteen arteko hausnarketa partekatua du oinarri azterketa honek.

Gazteen erabilerarekin harremanean jartzen den edonori (kanpaina bat egin nahi duena, egitasmo bat antolatuta nahi duena, kirol-elkarte batean gazteekin diharduena...) fenomenoaren alderdi ezberdinak presente izanik, usteen eta iritzietan oinarrituta baino, bere jarduna oinarri sendo baten gainean burutzeko baliabideak eskaintzea litzateke helburua. Proiektuari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, jo ezazue gure webgunera: <http://www.soziolinguistika.org/gazteak>

Koordinatzailea: Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org

6.3 Arlo sozioekonomikoa

Soziolinguistika Klusterrak arlo sozioekonomikoa lan-lerro nagusi gisa kontsideratzeko bi arrazoi nagusi ditu. Batetik, berreuskalduntze-prozesuari begira arlo honek duen garrantzia. Argi dago pertsona helduok eguneko denboraren zati handi bat esparru honetan igarotzen dugula; modu horretan, gure bizitzako zati handi bat lan-munduak eraten, moldatzen eta mugatzen du. Honek, beraz, eragin nabarmena du langile guztion euskalduntzean.

Bestetik, Kluster moduan, gure bazkideen premiei erantzuteko zeregina dugu: gure balioetan jasoa dugu “*bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, interes orokorreko proiektuak garatzea*”. Hortaz, arlo sozioekonomikoan maila aplikatuan lanean dabiltzan gure bazkideei begira arlo honen inguruko soziolinguistika-ezagutza garatzea beharrezkotzat jo dugu.

6.3.1 ERALAN2 proiektua

EraLan proiektuan bigarren fasea dugu honakoa. Aurrez, EraLan-en lehen fasean landu zen laneko esparruan euskararen erabileran eragiten duten aldagaien identifikazioa eta aldagai horietan eragiteko interbentzioak diseinatzeko metodologia.

Helburu nagusia ondorengo da: hizkuntza-normalizaziorako planak onartuta dituzten lan-munduko erakundeetan (publiko zein pribatuetan) euskararen erabileran eragiteko **lidergoa** aldagaia lantzeko metodologia diseinatzea eta probatzea. Horretarako, batetik, hizkuntzaren eraldaketa-prozesuetako lider-mota ezberdinak sortzeko (euskara-teknikaria, euskararen aldeko taldea, lider informalak eta lider instituzionalak), antolatzeko eta eraginkortasuna lortzeko estrategiak landuko dira, eta bestetik, hizkuntza-eraldaketa prozesua bideratzeko liderrak erabil dezakeen diskurtsoaren lanketan sakonduko da.

2008an lidergoari buruzko formazio-saioak antolatu ziren Garapen Taldeko erakundeentzat. 2009 eta 2010ean lidergoaren bidez euskararen erabileran eragiteko interbentzioak garatu dira erakunde hauetan, eta 2010eko udazkenerako esperientzia hauetatik ondorioak atera eta txosten batean biltzea da asmoa.

2009ko ikerketa-ekintza proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoa Donostiako Kutzaren laguntzarekin garatu da. Lan nagusi hauek aurrera eramaten unibertsitateko, administrazioko eta euskara-planen aholkularitzetako kideez osatutako Garapen Taldea aritu da. Ondorengoek parte hartu dute Garapen Taldean:

Nekane Goikoetxea (HUHEZI), Mikel Urdangarin (Ahize-Aek), Jokin Larrañaga (AFA), Maite Alvarez de Zarate eta Aitziber Gabikaetxebarria (Bermeoko Udala), Helene Armentia (Elhuyar Aholkularitza), Elias Zumalde (Emun Koop. E.), Izaro Ugalde (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mikel Irizar eta Imanol Miner (Gipuzkoa Donostia Kutxa) eta Oihana Lujanbio (Soziolinguistika Klusterra)

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

6.3.2 Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak proiektua

Ezagutzaren Clusterraren “Kudeaketa aurreratuko enpresak” koadernoak oinarritzat hartuta abiatutako proiektua da hau. Proiektu honen helburu nagusia **euskararen normalizazioan emaitza arrakastatsuak izan dituzten erakundeen esperientziak ezagutzera ematea da**. Esperientzia hau formatu irakurterrazean idatzita, erakunde horiek lortutako arrakastaren gakoei buruz gogoeta suspertu eta euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak hedatu nahi dira enpresa-, unibertsitate- eta administrazio-arloan.

2007an argitaratu ziren aurreneko bi kasuak eta hauetan ELAY eta EIKA enpresak aztertu genituen (www.soziolinguistika.org/kasuak). 2008an Bergarako Udala eta IMH institutua landu ziren eta 2009an berriz, Lizarra Ikastola eta Txingudi Ikastola izan dira aztergai..

Karmele Perezen zuzendaritzapean (HUHEZI) eta Oihana Lujanbiok koordinatuta (Soziolinguistika Klusterra), azken kasu hauek idatzi dituztenak Maider Etxaniz eta Onintza Enbeita izan dira. Bestalde, lan horretarako, Innobasqueko Javier Zarrabeitia aholkulari izan dugu. Proiektuak Euskadiko Kutzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesa izan du.

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

6.4 Familia-transmisioa

Euskararen berreskurapena lortzeko, ezinbestekoa da, belaunez-belauneko hizkuntza-transmisioa bermatzea. Horretarako, hezkuntzak zeregin garrantzitsua duen arren, ikerketa gehienek erakusten dute, belaunaldi berrien hizkuntzaren erabilera bermatzeko, hori bezain garrantzitsua dela familia bidez eginiko hizkuntza-transmisioa. Hortaz, honen inguruan, ikerketa eta esperientzia desberdinak abian jartzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

6.4.1 Bikoteen hizkuntza-ohituren aldaketa. Ikerketa-proiektua

Proiektu hau beren arteko harreman-hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteen kasuen gaineko ikerketa da. Ikerketaren helburua aldaketa hori egin duten bikoteen ibilbideak ezagutzea da, aldaketa-prozesu horietan eragin duten klabeak ezagutzeko. Modu horretan, gainera, hizkuntza-ohitura aldatzearen fenomenoari buruzko ezagutza ere eskuratu nahi da.

Ikerketa 2008ko udaberrian jarri zen martxan eta 2009an amaitu da. Soziolinguistika Klusterrak ikerketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) eskariz burutu du eta Pello Jauregi (HUHEZI) irakaslearen aholkularitza izan du. Bestalde, Ziortza Sanz izan dugu lankide, bikoteen elkarriketak egiten.

Proiektu honen ideia *Buruntzaldeko transmisioa indartzeko programaren* baitan sortu zen, eta ikerketan eskuratzen den informazioak familia bidezko transmisioa indartzen lagundu dezake.

6.5 Hausnarketa teorikoa bultzatu

Hizkuntzaren berreskurapen bidean, argi dago ezagutza aplikatua lantzea ezinbestekoa dela. Baina, ezagutza aplikatu horiek oinarritzko teoria batzuetatik jaso behar du bere funtsa. Oinarritzko edo purua deritzon ikerketa eta hemendik atera litekeen ezagutza garatzea, beraz, behar-beharrezkoa zaigu. Honetarako, gune naturala unibertsitatea izan ohi da, baina, oraingoz behintzat, esparru honek soziolinguistika-arloaren garapena apala denez, Soziolinguistika Klusterraren erronka da, unibertsitateko irakasleak soziolinguistikaren ikerketa-lerro hauetara erakartzea.

6.5.1 Hausnartu. Soziolinguistika sariak

HAUSNARTU deitutako sariak antolatu ditu Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin. Sari horien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Deialdi honetan euskal soziolinguistikaren arloan garapen teorikoak lantzen dituzten lan hoberenak sarituko dira. Kontuan hartuko dira euskararen gaineko berriazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako garapenetatik abiatuta, gure hizkuntzaren egoera aztertzeke eta ulertzeke egokitzapenak.

Asmoa hauxe da: dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Horrela, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaldu eta aberastuko dira.

2009ko saridunak hautatzeko epaimahai-kideak ondorengoak izan dira: Iñaki Martínez de Luna, EHUko irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordekoa, Pello Jauregi, HUHEZIko irakaslea, Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Igor Calzada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako koordinazio zuzendaria. Sari banaketa otsailaren 26ko III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian egingo da. Ondorengoak izan dira saritutako lanak eta euren egileak:

- Lehen saria (1.000 €): *Argiak eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi-goza*. Dabid Anaut Peña
- Bigarren saria (700 €): *Teoria ekonomikoaren ekarpenak soziolinguistika alorrean*. Jose M. Zendoia Sainz
- Hirugarren saria (500 €): *Hizkuntza-plangintzekiko erresistentziak organizazioetan*. Urtzi Barrenetxea Iparragirre

Saritutako lan guztiak BAT Soziolinguistika aldizkariaren 73. zenbakian argitaratuko dira.

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

6.6 Komunikazioa eta teknologia berriak

Komunikazio-molde berrien sorrerak eta hazkundeak eragindako aldaketek leku berezia dute gaur egungo gizartean. Mugarik gabeko harremanak eta komunikazio masiborako aukeren aurrean, gizabanakoek eta komunitateek testuinguru honetan egokitzeko ahalegina egin behar dute. Hizkuntza gutxituen komunitateen ikuspegitik ere, egungo baldintzetara egokitzea erronka nagusietako bat da. Horregatik, gai honi garrantzia eman eta ikuspegi soziolinguistikotik landu beharra ikusi dugu.

6.6.1 Komunikazio-kanpainak ebaluatzeko adierazle-sistema osatzea

Burura eramaten diren kanpainak ebaluatzeko bitarteko eta jakintza aldetik hutsuneak nabaritu dira. Horrek, sarri, itsu-itsuan jokatzeko sententzia sortzen du, eta kanpaina horien kalitatea hobetzeko funtsezkoa den informazioa faltan sumatzen da. Beste modu batean esanda, adierazle-sistema edo -eredu bat eraikitzearen beharra detektatu da. Izan ere, hainbat bidetatik heldu da kezka hori Soziolinguistika Klusterrera, bereziki euskara-teknikari anitzen hitzetan eta egindako hainbat proposamenetan.

Proiektu honen helburua ondorengo izan da: euskara sustatzeko komunikazio-kanpaina eta bestelako ekimenen eraginkortasuna hobetzea. Horretarako, lehenik, hurrenez hurren ikus-entzunezkoen ekoizpenean eta komunikazio-kanpainen diseinuan aritzen diren Digitalak eta Arista enpresen lankidetzarekin gaiaren inguruko ikastaroa antolatzen zen.

Ondotik, 2010ean zehar, diziplina desberdinetako kideekin (udal-teknikariak, enpresetako komunikazio-arduradunak, komunikazioan adituak...) lan-taldea eratuko dugu euskara sustatzeko komunikazio-kanpainak ebaluatzeko adierazle-sistema osatze aldera.

6.7 Ezagutzaren dibulgazioa

Soziolinguistikaren inguruan garatutako ezagutzak hizkuntza normalkuntzari benetako bultzada eman diezaion, beharrezkoa da ezagutza honen dibulgazioa behar bezala lantzea. Dibulgazio-lan hau egiteko bi bide nagusi jorratu beharra ikusten dugu. Batetik, argitalpenen bidez, informazioa hedatuz. Bestetik, formazioaren bidez, ezagutza hori transmitituz.

6.7.1 Bat Soziolinguistika Aldizkaria

Euskararen berreskurapen- eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolinguistikan eta glotopolitikan jantzea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako Euskal Herriko nahiz atzerriko (bereziki Europako) ekarpen esanguratsuak biltzen ditu.

Soziolinguistika alor aski diziplinartekoa denez, aldizkariak ahalegin berezia egiten du aniztasun horri bide ematen, bai gaileri dagokionez, bai egileei dagokionez. Honela, aldizkariaren orrietan jurilinguistikan katedradun denaren gogoeta sakonak edo normalizazio-ekimen bat burutu duen eragile baten azalpen xehea topa dezakezu.

Bere sorreraz geroztik, 1990. urtetik aurrera, urtero batez beste lau zenbaki eman ditu argitara. Jarraian dituzue 2008an zehar argitaratu diren zenbakiak:

- 70. zenbakia: Euskararen legeak
- 71. zenbakia: Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí"-ren omenez
- 72. zenbakia: Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizariek? - 2009ko UPV/EHUko Udako Ikastaroaren inguruan
- 73. zenbakia: Euskara lan-munduan... lanean! - 2009ko Udako Euskal Unibertsitateko Ikastaroaren inguruan

Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikulak (azken laurak izan ezik) edonoren eskura jartzen ditu, bildutako ezagutzaren zabalpena egiteko. Horretarako, bere webgunean (<http://www.soziolinguistika.org/node/3>) eskaintzen ditu.

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

6.7.2 Soziolinguistika Klusterraren webgunea

Soziolinguistika Klusterraren webgunea egiten dugun lanaren erakusleho nagusia dugu. Horrela, BAT Soziolinguistika aldizkariarekin batera, gure proiektuen bidez garatutako ezagutza gure bazkideen eta, orokorrean, jendartearen esku jartzeko tresna nagusia dugu.

Bestetik, Soziolinguistika Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begira, proiektu bakoitzaren bilakaera kontsultatu ahal izateko, proiektuetan sortutako informazioa trukatu ahal izateko, bileren aktak eta bestelakoak eskuratzeko... aukera eskaintzen du. Horrela, gure proiektuak sarearen abantaila eta aukerak aprobetxatuz garatu ahal izateko tresna ere bada gure webgunea.

Honi guztiari begira, 2009an emaniko urrats nagusiak ondorengoak izan dira:

- Baliabide teknikoak garatu dira, egitasmoaren arabera, edukien sindikazioak RSS (mota desberdinekoak) jarioaren bitartez kodetuz albisteak berritzeko.
- Sare sozialak sustatzeko baliabide teknikoak abian jarri dira. Arreta berezia jarri da Soziolinguistika Klusterrak bere inguruan edota soziolinguistika inguruan orokorrean dabilzan pertsonen arteko sare soziala osatzeko. Pertsona horien elkarlana eta elkar ezagutza bultzatzeko baliabideak eta erremintak jarri dira martxan.
- Abian ditugun proiektuei buruzko oinarritzko informazioa, dokumentu interesgarrietara estekak, datuak, artikulak eta bestelakoak kontsultatzeko aukera eskaintzen dugu... Horretarako egungo atal guztien eguneratze etengabekoa ziurtatu da.

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

6.7.3 SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera

SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa euskararen normalizazioarekin loturiko edota soziolinguistika-arloko, argitalpen, ikerketa, ekimen eta abarren inguruko informazioa zabaltzeko sorturiko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaldu du orain artean, web bidez eta posta elektroniko mezu bidez, arlo honetan interesa duten guztientzat.

Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoan soilik banatzen da, eta formatu laburrean, kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dagokion helbide elektronikoaren lotura bertan jarritz.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabetean behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara zerbitzuak, euskara-elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara-teknikariak, irakaskuntza-arloan normalkuntza plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

6.7.4 Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

UEUko ikastaroek aukera paregabea eskaintzen dute urtean zeharreko jardun itogarritik distantzia hartu eta soziolinguistikaren inguruko gogoetak eta elkarrizketak partekatzeko. Horregatik, 2005. urtetik, Soziolinguistika Klusterrak urtero probestu ditu ikastaro hauek soziolinguistika-arloko gaiak jorratzeko. Azken edizioan, 2009ko uztailaren 8 eta 9an Baionan, euskara lan-munduan normalizatzeko ahaleginak zertan diren aztertu zen "Euskara lan-munduan... lanean!" ikastaroan. Lan-mundua euskalduntzeko lehen ekimenak abian jarri zirenetik urte batzuk igaro direla eta, denbora-tarte horretan emandako urratsak aztertzeko eta aurrera egiteko ildo ez hausnartzeko asmoz antolatu zen ikastaroa.

Koordinatzailea: Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org

6.7.5 Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan

Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak? Galdera hori izan zen ikastaroaren izenburua eta oinarria eta "Komunikazioaren gizartea", "aro globala", "hedabideak", "nortasunaren eraikuntza" eta "hizkuntzen industria" bezalako hitz gakoien inguruan jardun genuen, soziolinguistikaren ikuspegitik. Nagusitzen ari diren gizarte-aldaketei aurrea hartu nahian eta errealitate berriei begiratzeko, goi-mailako irakasle-taldea bildu zen ekainaren 22tik 24ra burutu genuen ikastaroan.

Ikastaroaren helburuak honakoak izan ziren: komunikazio-gizarte aroan euskal gizarteko jarrerak ezagutzea eta etorkizuneko jokaerak irudikatzea; kultura-identitateen eraikuntzan komunikabideek duten papera aztertea; euskara, gaztelania, ingelesa eta beste hizkuntzek duten eginkizuna eta, munduko joera homogeneizatzailearen aurrean, tokian tokiko hizkuntzen lekuaz eztabaidatzea.

Ikastaroan parte hartu zuten irakasleak honakoak dira:
Josu Amezaga (Euskal Herriko Unibertsitatea.), Iban Arantzabal (Goiena komunikazio zerbitzuak), Igor Calzada (Nevadako Unibertsitatea), Elin Haf Gruffydd Jones (Mercator Minority Language Media Network), Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea-HUHEZI), Josu Waliño (Elhuyar fundazioa), Aitor Zuberogoitia (Mondragon Unibertsitatea-HUHEZI)

Koordinatzailea: Asier Basurto
asier@soziolinguistika.org

6.7.6 Soziolinguistika eskuliburua

2008an jarri zen abian proiektu hau. **Helburua soziolinguistikari eta, bereziki, euskal soziolinguistikari buruzko oinarrizko eskuliburua euskaraz sortzea izan da.**

Euskararen normalizazioak eskatzen duen gizarte-eraldaketa prozesu konplexuak, beste gauza askoren artean, ezagutza teorikoa eta teknikoa eskatzen ditu. Kontuan hartu behar da soziolinguistikak gaur arte zientzia-alar gisa izan duen garapena mugatua dela. Eta, horrez gain, bertan egin diren ikerketak eta landu diren eredu teorikoen zabalpenerako bideak ere ez direla oso ugariak, ez mundu akademikoan, eta ez sozialki.

Soziolinguistikako oinarri teoriko sendoagoak dituzten ikasle-irakasleak izateak, eta plangintza lanean ari diren profesionalen oinarri teorikoak zein erreferentziak eskaintzeak aurrerapauso kualitatiboa suposatuko luke, zalantzarik gabe, euskararen sustapen eta normalizazioan. Soziolinguistika Klusterreko kide diren erakundeetako teknikari eta irakasleen aldetik, edota proiektuetan lankide izaten ditugun beste erakundeetako kideen aldetik ere, askotan nabarmendu izan da soziolinguistika-eskuliburu landu batek arlo honetara ekarriko lukeen aurrerapausoa.

Hainbat adituk osatutako lan-taldea izan dugu lan honetan gidari. Lan-taldean, honako izen hauek ditugu:

Jon Aizpurua (HPS), Eider Alustiza (Emun Koop. E.), Esti Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Imanol Azkue (Elhuyar Aholkularitza), Battittu Coyos (UPPA), Jone M. Hernández (UPV-EHU), Lionel Joly (Euskaltzaindia) eta Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

Eta ondorengoak izan ditugu eskuliburuko idazleak edo egileak: Paul Bilbao (Hizkuntz Eskubideen Behatokia), Battittu Coyos, Jone M. Hernández, Lionel Joly, Imanol Larrea (Emun Koop. E.), Loren V. Martínez Bermúdez (hizkuntza irakaslea), Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra) eta Arkaitz Zarraga ("Begoñako Andra Mari", Irakasleen Unibertsitate Eskola). Idazle guztien lanak bateratzen aritu dena ere Arkaitz Zarraga izan da.

Eskuliburua 2010eko apirilean emango da argitara.

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

6.7.7 Soziolinguistika jardunaldia

II. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia MIRAMON Kutxaespazioan burutu zen Soziolinguistika Klusterrak antolatuta. Jardunaldia hausnarketa teorikoan eta maila aplikatua euskalgintzan ari direnei zuzenduta zegoen eta bertan elkartu ziren ehun bat lagun. Landutako gaiak euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak eta informazio- eta komunikazio-teknologien erronkak izan ziren.

Bertaratutako jendeari parte hartzeko aukera eskaintzea ere bilatu genuen. Horrela, areto nagusian eskainitako hitzaldiaz gain, tailerrak eta areto txikiagoetan eskainitako hitzaldiak izan zituzten aukeran

Bestalde, ezagutzaren transmisiorako gune soil izatetik, jardunaldia, harreman-gune izatea ere bilatu genuen.

Jardunaldi honen emaitza gisa, berriz, ondorengoak azpimarra genitzake:

- Bertan emaniko hitzaldien materiala eta bideoak zabaltzea: jardunaldian hitz egin eta landu ziren gaiak Soziolinguistika Klusterreko webgunean (ikus http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia_atala) daude ikusgai.
- Soziolinguistikako adituen edo erreferentziako pertsonen hitzaldiak eskaintzea: soziolinguistikako erreferentziako pertsonak jardunaldi hauetara biltzea. Horrela, euren ezagutza hitzaldien bidez transmititzeko eta eurekin harremanak lantzeko gune bat eskainiaz.

Koordinatzailea: Belen Uranga
belen@soziolinguistika.org

7 Komunikazioa eta harremanak

Soziolinguistika Klusterraren misioan gure egitekoen artean jaso dugu, eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea. Horretarako, ezinbestekoa da soziolinguistikaren inguruko sare hori eratzen joatea. Helburu horri begira garrantzia berezia du, bai harremanei dagokionez bai eta komunikazioari dagokionez ere, egin dezakegun lanak. Horregatik, bi arlo hauek lantzeko ahalegin berezia egin dugu.

Hori aintzat hartuta, 2009rako harreman-plana eta komunikazio-plana osatu genituen. Jarraian aurkeztuko dizuegu bakoitzean eginiko lanaren berri.

7.1 *Harremanak*

Jarraian bildu ditugu ildo honetan eman ditugun urrats nagusiak:

▪ **Bazkideekin bilerak:** ondorengo bazkideekin bildu gara.

- Topagunea
- HUHEZI
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Gipuzkoa Donostia Kutxa
- Euskara Kultur Elkargoa

Bilera hauetan, gure jardueraren berri emateaz gainera, euren asmoen eta beharren berri jaso genuen. Horrela, aurrera begira, Soziolinguistika Klusterrak garatu beharreko lankidetzak eta proiektu berrietarako aukerak aztertu dira.

▪ **Bazkideentzako berripapera:** bazkideek Soziolinguistika Klusterraren inguruko berri zehatzagoa izan dezaten, bazkideen berripapera osatu genuen iaz. Aurten berripaperaren laugarren, bosgarren eta seigarren zenbakiak banatu ditugu.

▪ **Kanpo eragileekin bilerak:** ondorengo erakundeekin egin ditugu bilerak

- | | |
|---|---|
| 1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza | 2. Gipuzkoako Foru Aldundia |
| 3. IkerBasque | 4. Euskadiko Kutxa |
| 5. Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) | 6. Basque Center on Cognition, Brain and Language |
| 7. InnoBasque | 8. Alkarbide |
| 9. UPV-EHU | 10. Gipuzkoa Berritzen |
| 11. Federacion de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras (FCAVN) | 12. Bermeoko Udala |
| 13. UNESCO Etxea | 14. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) |
| 15. HABE Liburutegia | |

Bilera hauen helburua, garatzen ari ginen jardueren eta esku artean genituen asmoen berri emateaz gain, aurrera begira izan genitzakeen elkarlan aukerak aztertzea zen.

Nazioarteko harremanak: Soziolinguistika Klusterrak beharrezkotzat du kanpoan egiten ari denaren berri ezagutu, eta atzerriko aditu eta eragileekin harremana lantzea. Bi arlo hauetan, aurtengoan, zenbait harreman landu ditugu. Horrela, Vicent Partal, Vilaweb gunearen sortzailea, zuzendaria eta teknologia-berrietan aditua, gure jardunaldira gonbidatu eta elkarren berri izateko aukera izan genuen.

Kanpo kontsultak: Soziolinguistika Klusterrarentzat garrantzizkoa da arloaren inguruko zalantzaren bat duen edonork Klusterrera jotzea erreferentzia eske. Soziolinguistika Klusterraren erreferentzialtasunaren adierazle izateaz gainera, jende berriarengana iritsi eta arloko zalantza eta kezken berri izaten laguntzen digu. Horregatik, jaso ditugun galdera, kontsulta eta abar kudeatzeko sistema osatzeko bidean lehen urratsak eman ditugu. Horrela, esan

dezakegu aurtengoan 29 kontsulta jaso ditugula, horietatik gehienak datu soziolinguistikoen eskaerak izan dira. Bestelakorik ere izan da, ordea: gure proiektuen berri zehatzago izan nahia, iritzi edo aholku teknikoa, soziolinguistika-erloko lan, esperientzia edota adituen erreferentzia eskaerak...

Honek guztiak arrakasta izan dezan, noski, kontsulta hauei ahalik eta modu azkarrenean eta egokienean erantzutea ezinbestekoa da. Hori izan da gure saiaketa eta aurrera begira ere sakondu asmo dugun bidea.

7.2 Lankidetzak

Udaltop Jardunaldia: jardunaldi hauetan parte hartu eta bi ponentzia aurkeztu ditugu, *Bikoteen artean hizkuntza hituren aldaketa* ikerketa eta *Nola heldu transmisioaren gaiari? Buruntzaldean egindakoak eta ondorioak*.

HIK HASI: HIK HASI-k antolatutako udako Topaketetan *Euskararen erabilera sustatzen hezkuntzan* ikastaroaren baitan, *Gazteen hizkuntza erabilerearen azterketa proiektua* hitzaldia eskaini dugu

EHU: EHUko udako ikastaroetan soziolinguistikaren inguruko ondorengo ikastaroa antolatu dugu: *Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?*

KUTXA: Zabalegi finkan Eko-Kutxa proiektua garatu asmo du KUTXAK, garapen iraunkorrari buruzko gune gisa. Gune honetan, besteak beste, hizkuntzen ekologia eta hizkuntzen garapen iraunkorra landu asmo du. Gune honen diseinu eta garapenerako aholkularitza eskaini diegu.

HABE liburutegia: proiektuetarako, erreferentzia bibliografikoak eskuratzeko eta liburutegiko funtsaren zabalpena egiteko lankidetzak hitzartu dugu.

Eusko Ikaskuntza: lantzen ari diren Auñamendi entziklopediaren eguneraketarako Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika ataleko edukiak eguneratzeko ardura bere gain hartu du. Horrekin batera, Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuan bi saio antolatu ditugu Hizkuntzen ekologia eta garapen iraunkorra gaiaren inguruan.

ASMOZ Fundazioa: urtero bezala, HIZNET hizkuntza plangintzako graduondoko ikastaro laguntzaile izan gara.

UEU: udako ikastaroen baitan, *Euskara lan munduan... Lanean!* ikastaroa antolatu dugu.

Topagunea: Topaguneak Berrikuntza Agenda osatzeko prozesuaren baitan antolatutako gogoeta saioan parte hartu dugu.

7.3 Komunikazioa

Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika-ezagutza garatzea bere jardueraren erdigunean kokatu izan du. Ezagutza horri benetako etekina aterako bazaio, ordea, beharrezkoa ikusi dugu, garatzeaz gain, behar bezala hedatu edo dibulgaratzea. Horregatik, eguneratu berri dugun misioan, ideia hau jasotzeaz gain, horretarako ahalegin berezia egin dugu 2009an komunikazio-plan egokitu bat osatu eta berau aurrera ateratzen. Horren emaitza gisa, jarraian jaso ditugu Soziolinguistika Klusterrak izan dituen kanpo agerpenen erreferentziak:

Ekintza mota	Kopurua
Internet-eko gune desberdinetako agerpenak	80
Mailing-ak	35
Prentsa / irratietan agerpenak	27
Hitzaldiak	9
Posta-bidalketa zabalak	8
Argitalpenak	6
Soziolinguistikaz berripaperaren bidalketak	5
Hedabideetan elkarrizketak	4
Bazkideen berripaperaren bidalketak	3

8 Soziolinguistika-arloko sarea eratzen

Soziolinguistika Klusterra sortu zenean eginiko gogoetetan nabarmen ageri zen soziolinguistikaren inguruan lanean ibili bazebiltzala hainbat erakunde eta norbanako. Klusterraren baitan ikusten genituen egitekoen artean, horiek guztiak soziolinguistika ezagutza garatzeko proiektuetan egituratzea zegoen. Horiek guztiakin soziolinguistika-arloko sarea eratzen joatea, hain zuzen. Bide honetan 2009 ere zenbait urrats eman dira. Horren erakusle, urtean zehar Klusterrarekin harreman-mota bat edo beste izan dutenen zerrenda doakizue jarraian:

Izen deiturak	Erakundea	Harreman mota	Proiektua
1. Abel Irizar	Emun Kooperatiba Elkarte	Hizlaria	Eusko Ikaskuntzako kongresua Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
2. Agurtzane Loidi	Elhuyar Aholkularitza	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
3. Aitor Zuberogoitia	HUHEZI	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
4. Aitziber Gabikaetxebarria	Bermeoko Udala	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
5. Aizpea Otaegi	Elhuyar Aholkularitza	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
6. Amaia Antero	Topagunea. Euskara Elkartearen Federazioa	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
7. Amaia Arozena	Arista Komunikazio enpresa	Hizlaria	Euskara Sustatzeko Komunikazio Kanpainak hobetzeko ikastaroa
8. Antton Peñalba	IRALE	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
9. Arkaitz Zarraga	"Begoñako Andra Mari", Irakasleen Unibertsitate Eskola	Proiektu-taldeko kide Idazlea	Soziolinguistika Eskuliburua Soziolinguistika Eskuliburua
10. Battittu Coyos	René Descartes Unibertsitatea	Proiektu-taldeko kide Idazlea	Bat Soziolinguistika Aldizkaria Soziolinguistika Eskuliburua Soziolinguistika Eskuliburua
11. Bea Salaberri	AEK - Ahize	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
12. Bittor Zarrabeitia	Gernikako Udala	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
13. Daniel Hermosilla	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Aholkularia Hizlaria	ERALAN proiektua Eusko Ikaskuntzako kongresua
14. Edurne Bilbao	IMH Institutua	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
15. Eider Alustiza	Emun Kooperatiba Elkarte	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
16. Elias Zumalde	Emun Kooperatiba Elkarte	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
17. Elin Haf Gruffydd Jones	Mercator Minority Language Media Network	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
18. Erramun Osa	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinazio Zuzendaria	Hizlaria	II. Soziolinguistika jardunaldia
19. Estepan Plazaola	Bergarako Udala	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
20. Estibalitz Alkorta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide	Hausnartu proiektua
21. Estibalitz Amorrortu	Deustuko Unibertsitatea. Filologia Saila	Proiektu-taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria Soziolinguistika Eskuliburua
22. Estiñe Astorkia	Artez Euskara Zerbitzua	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
23. Felipe Iñarra	Elhuyar Aholkularitza	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
24. Fermin Lazkano	IMH Institutua	Hizlaria	II. Soziolinguistika jardunaldia
25. Gorka Julio	Informatikari Ingeniari Teknikoa (Elurnet)	Hizlaria	II. Soziolinguistika jardunaldia
26. Gotzone Elu	Hezkuntza Saila. IRALE	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
27. Helene Armentia	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
28. Iban Aranzabal	Goiena komunikazio zerbitzuak	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
29. Igor Calzada	Hizkuntza Politikarako Koordinazio Zuzendaria	Proiektu-taldeko kide Hizlaria	Hausnartu proiektua Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
30. Iker Estala	Arista Komunikazio enpresa	Hizlaria	Euskara Sustatzeko Komunikazio



			Kanpainak hobetzeko ikastaroa
31.	Imanol Azkue	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide Soziolinguistika Eskuliburua
32.	Imanol Larrea	Emun Kooperatiba Elkarte	Idazlea Soziolinguistika Eskuliburua
33.	Imanol Miner	Gipuzkoa Donostia Kutxa	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
34.	Iñaki Artola	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu-taldeko kide ARRUE proiektua
35.	Iñaki Gaminde	EHU - UPV	Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
36.	Iñaki Martínez de Luna	Eusko Ikaskuntza	Proiektu-zuzendaria ARRUE proiektua
			Proiektu-taldeko kide Bat Soziolinguistika Aldizkaria Hausnartu proiektua
			Hizlaria II. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia Eusko Ikaskuntzako kongresua
			Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
37.	Inar Mutiozabal	Arista Komunikazio enpresa	Hizlaria Euskara Sustatzeko Komunikazio Kanpainak hobetzeko ikastaroa
38.	Inma Muñoa	Gipuzkoako Ikastolen Elkarte	Proiektu-taldeko kide Bat Soziolinguistika Aldizkaria
			Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
39.	Irantzu Epelde	Iker Ikerketa Zentroa	Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
40.	Iratxe Esnaola	Deustuko Unibertsitatea	Hizlaria II. Soziolinguistika jardunaldia
41.	Isusko Diez	IMH Institutua	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
42.	Itziar Elortza	Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Hizlaria II. Soziolinguistika jardunaldia
43.	Itziar Idiazabal	UPV-EHUko Historia, Geografia eta Filologia Fakultatea	Hizlaria Eusko Ikaskuntzako kongresua
44.	Izaro Ugalde	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
45.	Jaime Altuna	Gipuzkoako Urtintxa Eskola	Proiektu-taldeko kide Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
46.	Jasone Aldekoa	Zaratamoko Berritzegunea	Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
47.	Javier Zarrabeitia	Innobasque	Aholkularia Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak
48.	Jojo Bordagarai	AEK - Ahize	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
49.	Jokin Larrañaga	Arabako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
50.	Jon Aizpuna	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	Proiektu-taldeko kide Soziolinguistika Eskuliburua
51.	Jon Sarasua	HUHEZI	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
52.	Jone Miren Hemández	EHU-UPV. Antropologia Saila	Proiektu-taldeko kide Bat Soziolinguistika Aldizkaria Soziolinguistika Eskuliburua
			Idazlea Soziolinguistika Eskuliburua
53.	Jose Mari Berasategi	Arabako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
54.	Josu Amezaga	EHU-UPV. Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
55.	Josu Waliño	Elhuyar Fundazioa	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak EHUren udako ikastaroetan
56.	Joxean Amundarain	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
			Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
57.	Juanito Etxeberria	EHU-UPV. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila	Aholkularia ARRUE proiektua
58.	Juanjo Arropide	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Aholkularia ERALAN proiektua
59.	Julen Arexolaleiba	HUHEZI	Aholkularia Soziolinguistika Eskuliburua
60.	Karmele Perez	Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI	Proiektu-zuzendaria Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak
			Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
61.	Kepa Atutxa	Egaratu	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
62.	Lionel Joly	Euskaltzaindia	Proiektu-taldeko kide Bat Soziolinguistika Aldizkaria Soziolinguistika Eskuliburua
			Idazlea Soziolinguistika Eskuliburua
63.	Loren V. Martínez Bermúdez	Hizkuntza irakaslea	Idazlea Soziolinguistika Eskuliburua
64.	Maider Gaztaka	Artez Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
65.	Maite Alvarez de Zarate	Bermeoko Udala	Proiektu-taldeko kide ERALAN proiektua
66.	Maria Jose Azurmendi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu-taldeko kide Bat Soziolinguistika Aldizkaria
			Hizlaria Eusko Ikaskuntzako kongresua
67.	Marifer Gorostiza	Lasarte – Oriako Udala	Hizlaria Soziolinguistika ikastaroak UEUren

			udako ikastaroetan
68. Mikel Irizar	Gipuzkoa Donostia Kutxa	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
		Hizlaria	Eusko Ikaskuntzako kongresua
69. Mikel Urdangarin	Ahize – AEK	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
70. Mikel Zalbide	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
		Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
		Zuzendaria	ERALAN proiektua
71. Nekane Goikoetxea	HUHEZI	Hizlaria	II. Soziolinguistika jardunaldia Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
72. Nekane Jausoro	EHU-UPV. Soziologia II Saila	Proiektu-taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
73. Olatz Olaso	Emun Kooperatiba Elkarte	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
74. Pablo Sotés	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Proiektu-taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
75. Paula Kasares	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
76. Pello Jauregi	HUHEZI	Aholkularia	Bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa proiektua Hausnartu proiektua
77. Pilar Kaltzada	Innobasque-ko komunikazioa zuzendaria	Zuzendaria	Komunikazio kanpainak ebaluatzeak adierazle sistema osatzea
78. Rosa Ramos	NETELE	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
79. Santos Izagirre	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
80. Sonia Perez	Euskara Elkartearen Topagunea	Proiektu-taldeko kide	Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
81. Txema Abarategi	Fagor Etxetresna Elektrokoak	Hizlaria	Eusko Ikaskuntzako kongresua
82. Vicent Partal	Kazetaria, Vilaweb gunearen sortzailea eta zuzendaria	Hizlaria	II. Soziolinguistika jardunaldia
83. Xabier Erize	Nafarroako Kutxa (CAN)	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
84. Zihara Aranbarri	Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI	Proiektu-taldeko kide	Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratua

Ilusioa sorrarazten du urtez urte lankide izan ditugunen zerrenda nola doan hazten ikusteak. 2005ean 40 lagun bildu genituen gure proiektuen inguruan eta 2009an beriz jada 80tik gora lagun izan ditugu lankide. Lerro hauen bidez, gure esker ona adierazi nahi genieke. Euren laguntzarik gabe Soziolinguistika Klusterrak ezingo lituzke garatu dituen proiektuak aurrera eraman, eta espero dugu aurrerantzean ere soziolinguistika ezagutza garatzen eta zabaltzen jarraitzeko bidelagun izango ditugula.

9 Urteko helburuak eta balantzea

Ondorengo taulan jaso ditugu esparruz esparru 2009rako jarri genituen helburuak:


Helburu "gakoak"	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jendartean 10 produktutik gora zabaltzea ▪ Komunikabideetan (paperezko edo elektroniko) 35 artikulutik gora argitaratzea ▪ 15 kanpo-konsulta jasotzea ▪ Harreman-planeko kanpo-erakundeen artetik, kasuen % 75ean, jarritako helburuak betetzea ▪ Gure aldetik lankidetzaren proposamena jaso duten erakundeen % 60arekin lankidetzaren hori abiatzea ▪ Urte hasieran aurrekontuaren % 70a ziurtatua izatea
Erabiltzaile / Komunitatea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsona juridiko diren bazkideen asebetetze-indizeak 7,5etik gorakoak izatea, 10eko eskalan ▪ Gainerako erabiltzaileen asebetetze-indizeak 7tik gorakoak izatea, 10eko eskalan ▪ Pertsona juridiko diren bazkideen artean % 75ak gutxienez proiektu-talde batean parte hartu izana ▪ Proiektuen babesle izan diren erakundeek aurreko urtearekiko % 5ean igotzea euren laguntza ▪ Proiektuen babesle izan diren erakundeetatik % 70a hurrengo urtean babesle izaten jarraitzea

Prozesuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berripaperaren hartzaileen asebetetze-indizea 7tik gorakoak izatea ▪ Proiektuen balorazio indizea 6tik gorakoak izatea ▪ Garatu ditugun harremanetatik, kasuen % 80ean helburuak aurrez zuzendaritzan adostu izana ▪ Gutxienez, 15 kanpo-eragilerekin egitea bilerak ▪ Soziolinguistika Klusterraren komunikazio- lanari buruzko bazkideen balorazioa 7tik gorakoak izatea ▪ Soziolinguistika Klusterraren komunikazio-lanari buruzko bulegoaren balorazioa 7,5etik gorakoak izatea ▪ Urtean zehar barne-funtzionamenduaren inguruan bi errebisio egitea ▪ Gogoeta Estrategikoari buruzko bulego eta zuzendaritzaren balorazioa 6tik gorakoak izatea
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Langileen trebakuntzan, bakoitzak (egun osoko jardunaren proportzioan) gutxienez 65 ordu egin izana lanordutan ▪ Langileen ezagutza partekatzeari buruzko bulegoaren asebetetzea 6tik gorakoak izatea, 10eko eskalan ▪ Langileen lan-giroari buruzko asebetetzea 6,5etik gorakoak izatea


Jarritako helburuen inguruko balantzeak berriz, ondorengo grafikoetan islatu ditugu:

9.1 Adierazleen balantzea


Helburu gakoak




Erabiltzaileak



(Barne) Prozesuak eta baliabideak



Pertsonen hobekuntza eta garapena



(1) Adierazle honi dagozkion datuak ez ditugu eskuratu



Adierazleei begiratuta esan dezakegu urte honetarako jarritako helburu gehienak bete ditugula. Zehazki, helburuen % 64 erabat osatu dugu eta gainontzekoen artean, bi helburu kenduta, gainerakoak % 74ko betetze-mailatik gora ditugu. Betetze-maila baxua jaso duten bi horien artean, ordea, bada bereziki nabarmendu beharreko bat: proiektu-babesleen finantzazio-igoera aurreko urtearekiko, hain zuzen. Izan ere, 2009ko galdu irabaziak orekatzeko, jakin bagenekien ezinbestekoa suertatuko zitzaigula sarrera berriak eskuratzea. Horretarako, jada babesle genituen erakundeetatik baliabide gehiago eskuratzea aurreikusi genuen. Aldiz, tartean ez genuen krisiak utziko zituen ondorioen behar bezalako aurreikuspenik egin. Horrela, aipatutako sarrerak ez ziren handitu, areago, murriztu egin ziren. Horrek, urtea galerekin amaitzea suposatu du.

